



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

52. INFORMAZIO BULETINA

> 2011ko Urtarrila

GIPUZKOA





NABARMENDU BEHARREKOA

> **Bitartekoak eraginkorki erabiliko dituen Europa, Europa 2020 Estrategiaren ekimen adierazgarria**

Bitartekoak erabiltzeko egungo ereduarekin ezin dugula jarraitu berresten du Batzordearen jakinarazpenak. Aldaketa horiei dagokienean, bitartekoen eraginkortasuna hobetzea oinarritzkoa izango da Europan hazkundea eta enplegua bermatu ahal izateko. Aukera ekonomiko handiak eragingo ditu, produktibitatea hobetuko du, kostuak murriztuko ditu eta lehiakortasuna areagotuko du. Beharrezkoa da produktu eta zerbitzu eta berriak garatzea eta inputak murrizteko era berriak aurkitzea, hondakinak murriztea, bitartekoen erreserben kudeaketa hobetzea, kontsumo-ereduak aldatzea, produkzio-prozesuak eta enpresen metodoak eta kudeaketa metodoak optimizatzea eta logistika hobetzea.

Horri esker, teknologiaren berrikuntza sustatuko da, hedatzen ari den "teknologia berdeen" sektorean enplegua bultzatuko da, Europar Batasuneko merkataritza mantenduko da, merkatu berriak irekitzea barne, eta kontsumitzaileen onerako izango da, produktu jasangarriagoak izango direlako.

Eta bitartekoak modu eraginkorragoan erabiltzeak Batasunaren helburuetako asko lortzen lagunduko digu: klima-aldaketaren aurkako borrokan aurrera egiteko eta 2050ean berotegi-efektuko gas-isurtzeak % 80 eta % 95 artean murrizteko helburua lortzeko funtsezkoa izango da.

Politikak definitzeko orduan bitartekoen eraginkortasunean arreta jartzea beharra eta aukera dela ondorioztatzen du jakinarazpenak. Ekimen adierazgarri honek esparru bat ezartzen du energia, klima-aldaketa, ikerketa eta berrikuntza, industria, garraioa, nekazaritza, arrantza eta ingurumen-politikaren arloetan epe luzerako estrategiek bitartekoen eraginkortasunari dagokionean emaitzak lortzea bermatzen laguntzeko.

Informazio gehiago.

http://ec.europa.eu/resource-efficient-europe/pdf/resource-efficient_europe_es.pdf



> Europar Batasunaren erantzun orokorra krisiaren aurrean

“Hazkunderari buruzko Urteko Etorkizuneko Azterlana: krisiaren aurrean EBaren erantzun orokorraren aurrerapena” jakinarazpenak Europa 2020 testuinguruan kokatzen ditu oinarritzko neurriak, eta Europak datorren urtean jarraitu beharreko norabidea adierazten du. Horrela, egonkortasun makroekonomikoan eta bateratze fiskalean, egiturazko erreformatan eta hazkundera sustatzeko neurrietan oinarritutako hamar premiazko ekimen zehazten ditu.

Oinarritzko neurriak hiru arlo nagusien ingurukoak dira: bateratze fiskal zorrotz baten beharra egonkortasun makroekonomikoa hobetzeko, egiturazko erreformak enplegu-tasa areagotzeko eta hazkundera sustatzeko neurriak.

Batzordeak hamar ekimen nabarmentzen ditu; horiek hiru arlo nagusitan bildu dira:

- Hazkunderari begirako oinarritzko baldintzak: bateratze fiskal zorrotza aplikatzea, desoreka makroekonomikoak zuzentzea eta finantza-sektorearen egonkortasuna bermatzea
- Lan-merkatuak mobilizatzea, enplegurako aukerak sortzea: lana balioztatu, pentsio-sistemak erreformatu, langabeak berriz lan-merkatuan lanean hasi eta segurtasunaren eta malgutasunaren arteko oreka lortu
- Hazkunderari lehentasuna ematea: Merkatu Bakarraren indarraz baliatu, hazkundera finantzatzeko kapital pribatua erakarri eta energiari ekiteko sarbidea sortzea

Informazio gehiago.

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2011:0011:FIN:ES:PDF>

> Europar Batasuneko merkatuek enpresa gipuzkoarrak suspertzen laguntzen dute

Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak landutako “Gipuzkoa: enpresen egoera” hileroko txostenean jasotzen denez, 2010. urtean Europar Batasunera egindako esportazioak enpresa gipuzkoarren guztizko salmenten % 16 izan ziren. Parte-hartze hori portzentajezko bi puntutan handitu da azken urtean barrena.

Horrela, enpresa gipuzkoarren guztizko salmentak % 2 areagotu ziren bitartean, barne-mailako salmentak % -5 egin zuten atzera, EBari egindako salmentak % 14 areagotu ziren eta munduko gainerako herrietara egindako salmentak nabarmen hazi ziren, zehazki, % 36.

Horren ondorioz, barne-merkatuak salmenta gipuzkoarren % 69 hartzen du, Batasuneko merkatuak lehen aipatutako % 16 eta munduko gainerako kanpoko merkatuek gainerako % 15a.

Informazio gehiago.

http://www.ogasuna.info/wp-content/uploads/2011/02/2010_12_eu1EUSK.pdf



KOMUNITATEKO POLITIKAK

> Kirolaren dimentsio europarra

Europar Batasunak kirolaren dimentsio soziala, ekonomikoa eta antolaketari dagokiona indartzera bideratutako proposamen berriak erabaki ditu. Jakinarazpenak hiru gai nagusiren inguruan hitz egiten du: kirolaren zeregin soziala, kirolaren dimentsio ekonomikoa eta kirolaren antolaketa. Batzordeak eta estatu kideek, norberak bere eskumen-esparruaren baitan, aurre egin liezaieketen balizko arazozen zerrrenda argigarria jasotzen da.

Kirolaren funtzio sozialari lotuta, ondorengo alderdiak aztertzen dira: Dopinaren aurkako borroka, Hezkuntza, prestakuntza eta kirol-kualifikazioak, Kirolaren bidez osasuna hobetzea eta Kirolean eta kirolaren bidez gizarteratzea.

Kirolaren dimentsio ekonomikoaren barruan: Datu errealetan (kontu sateliteak) oinarritutako politikak lantzea, Kirolaren finantziario jasangarria, Laguntzen inguruko EBaren arauen aplikazioa eta Eskualde garapena eta enplegarritasuna.

Eta kirolaren antolaketaren esparruan: Gobernantza egokiaren sustapena, Kirolaren ezaugarri bereziak, Kirolarien zirkulazio librea eta herritartasuna, Transferentziei eta kirol-agenteen jardueri buruzko arauak, Kirol-lehiaketen zuzentasuna eta Kirolaren sektorearen baitako elkarrizketa sozial europarra.

Halaber, EBaren ekimenak Europa 2020 Estrategiaren helburu orokorrak lortzen laguntzen du, bereziki kirolean eta kirolaren bidez gizarteratzea sustatzeko ekintzen bidez, hezkuntza eta prestakuntzaren bidez (Europako Kualifikazio Esparrura joz) eta EBaren jarduera fisikoaren Jarraibideen bidez.

Informazio gehiago.

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2011:0012:FIN:ES:PDF>



> Software eta aholkularitza gizonen eta emakumeen arteko soldatak bateratzeko

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako Europar Batasunaren 2015 Estrategiak, enpresetan ordainsarien berdintasuna sustatzera bideratutako ekimenak (esaterako, "ad hoc" tresnen garapena) laguntzeko konpromisoa hartu du.

Alemanian, Luxenburgon eta Suitzan garatutako tresnak (software) aurkeztu dira, soldaten desberdintasunen arrazoiak eta horiek arrazoi objektiboen ondoriozkoak diren edo ez kalkulatzeko laguntzeko.

Halaber, baldintza berdinetan ordainketen bateratzea sustatzeko helburua duten enpresei aholkularitza eta babesa eskaintzen die.

Informazio gehiago.

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?langId=es&catId=89&newsId=967&furtherNews=yes>



KOHESIO-POLITIKA

> Europa 2020 esparruaren baitan eskualdeko politikak hazkunde jasangarriari egindako ekarpena

Europako Batzardeak aurkeztutako Jakinarazpenean EBaren eskualdeko politikak bete beharreko zeregina zehazten da, «Europa 2020» estrategia aplikatzerakoan egin beharreko ekarpenari dagokionean; zehazki, berriki onetsitako «Bitartekoak modu eraginkorren erabiltzen dituen Europa» ekimen adierazgarriaren inguruan.

Bi oinarri dituen planteamendua proposatzen du eskualdeko politikak programazio-aldi honetan barrena hazkunde jasangarriari egin beharreko ekarpena areagotu dadin:

- Inbertsio handiagoa hazkunde jasangarrian: hazkunde jasangarriaren gaineko inbertsioen garrantzi estrategikoa sustatzea, bitartekoak modu eraginkorren erabiliko dituen eta karbono-isurtze gutxi izango dituen ekonomian arreta jarritz.
- Inbertsio hobeia hazkunde jasangarrian: politikak gauzatzeko mekanismoak hobetzea, programa operatiboetan garapen jasangarriaren printzipioen aplikazioa indartuz.

Informazio gehiago.

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docoffic/official/communic/sustainable/comm2011_17_es.pdf

> POCTEFA programa: proiektuen bigarren deialdia

Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoak, Espainia-Frantzia-Andorra 2007-2013 Lurralde Kooperazio-programaren Kudeaketarako Agintaritzak, bigarren deialdia ireki du eta Programaren ardatz desberdinen aurrean euren ekimenak aurkezteko gonbitea egin die mugaz haraindiko guneetako eragileei.

Deialdi honen zenbatekoa EGEFen 29,5 milioi euro da eta EGEFen esku-hartze tasa eragiketen guztizko kostu hautagarriaren % 65 da. Hautagaitzak aurkezteko epea maiatzaren 3an bukatuko da.

Programaren helburua mugaz haraindiko gune hautagarrian Espainiako eta Frantziako eragile sozio-ekonomikoen lankidetzak nola mugaz haraindiko erakundeek garatutako proiektuak sustatu eta finantzatzen laguntzea da.

Informazio gehiago.

<http://www.poctefa.eu/arbol/index.jsp?id=7516f549-9c07-46b0-9128-3ddd6399c643>



> Bosgarren Kohesio-txostena: Eusko Jaurlaritzaren ekarpena

Eusko Jaurlaritzak, Europar Batasunerako eta Kanpo-ekintzarako Zuzendaritzaren bidez, kohesio-politikari buruzko kontsulta publikoari egindako ekarpena igorri dio Europako Batzordeari, ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioari buruzko V. Txostenaren testuinguruaren baitan.

Beste hainbat alderdiren artean, ekarpen horretan Europa 2020 Estrategiaren hazkunde-lehentasunak, helburu nagusiak eta ekimen adierazgarriak programazio estrategikoari modu egokian eta eraginkorrean jakinaraztearen alde ageri da, etorkizuneko kohesio-politikari begira.

Eta zehazki, Batzordearen eta estatu kide bakoitzaren artean zehaztu beharreko Garapenerako eta Inbertsiorako Elkartearen Kontratuetan, estatu-mailan eta eskualdeetan garatu beharreko helburu eta jarduera zehatzak finkatu behar direla dio. Jakina, horiek aipatu Kontratuaren osaketaren baitan egon behar direla esan nahi du.

Horrela, 2014 urtetik aurrera, kohesio-politika aplikatzeko dokumentu zehatzek, eskualdeen programa operatiboek, euren helburu eta jardueretan argi eta garbi ezarri beharko lukete Europa 2020 Estrategiaren ekimen adierazgarrietako batekin edo batzuekin duten lotura.

Eta Eusko Jaurlaritzaren aburuz, lehiakortasun eta enplegu helburua duten gaur egungo eskualdeen kasuan, lehentasuneko jarduera ETEek garatutako berrikuntza-ekintzak sustatzeko neurriak edo programak babestea da. Bestalde, kudeaketa eta kontrol agintaritzen eta kontu-ikuskaritzen gainean Batzordearen eskakizunak hain zorrotzak ez izatea eta etorkizuneko programak kudeatzeko modu errazagoa ahalbidetzea egokia litzatekeela adierazten du.

Informazio gehiago.

Ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioari buruzko bosgarren txostena

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docoffic/official/reports/cohesion5/index_es.cfm

Eusko Jaurlaritzak kontsulta publikoari egindako ekarpena

http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-19239/es/contenidos/informacion/politica_regional/es_2340/adjuntos/CONSULTA-COHESION-2011-GOBIERNO-VASCO.pdf



> Bizkaiko Foru Aldundiak eta udalek elkarrekin finantzatutako eta kudeatutako proiektuak

Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak txosten monografikoa landu du Bizkaiko Foru Aldundiak eta Lurralde Historikoko udalek kudeatutako eta 2007-2013 epean Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) eta Europako Gizarte Funtsak (EGIF) batera finantzatutako proiektuen inguruan.

Informazio gehiago.

http://www.bizkaia.net/ogasuna/Europa-proiektuak/boletin.asp?boletin=8&Tem_Codigo=2349&Idioma=EU



e-LIBURUTEGIA

> Krisiak Europako hirietan izandako eragina

Europako hiri guztiek jasan dute krisiaren eragina modu batean zein bestean. Europako hirien arteko esperientziak trukatzeko xedearekin sortutako URBACT sareak, sareko kide diren hirien artean egindako galdeketa-erantzaren emaitzak jasotzen dituen txostena landu du. Halaber, krisiari erantzuteko hainbat hirik garatutako ekimenak aztertzen dituzten hainbat kasuren azterketak jasotzen ditu aipatu txostenak.

Txostena 131 hiriren ekarpenean oinarrituta landu da eta krisiak hirietako bakoitzean izandako eragina eta erantzunen izaera lau arlotan aztertzen ditu: Negozioak, Enplegua, Gizarte-baldintzak eta Aurrekontuak eta proiektuak.

Kasuen azterketak Dublin, Gijón, Jyväskylä, Malmö, Newcastle, Rotterdam, Tallinn, Turin eta Veria hirien ingurukoak dira.

Informazio gehiago.

http://urbact.eu/fileadmin/general_library/Crise_urbact__16-11_web.pdf



> Gurasoen kontrola Internetera sartzeko orduan

EBaren Safer Internet Programaren baitan, 2012 urtearen amaiera arte, sei hilero gurasoen kontrolerako informatika-programen azterketa finantzatzen du Batzordeak eta horren aurrerakuntzak jarraituko ditu. Azterketaren helburua gurasoei euren beharretara hobekien egokitzen den gurasoen kontrolerako tresna aukeratzeko laguntzea da.

Europako Batzordearen azterketak gurasoen kontrolerako hogeita sei tresna aztertu ditu ordenagailu pertsonalentzat, hiru joko-kontsolentzat eta bi telefono mugikorrentzat. Egun dauden informatika-programak linean helduentzako edukiak iragazteko orduan eraginkorrak direla dio, baina haurrentzat egokiak ez diren edukien iragazkiak pasatzeko gutxienez % 20ko aukera dagoela adierazten du, bereziki euren buruei kalte egitera bultzatzen dituztenak (anorexia, suizidioa edo euren buruak zauritzera bultzatzen dituzten guneak).

Era berean, zehatz-mehatz adingabeentzako edukiak dituzten beste gune batzuk blokeatuta daude. Oso tresna gutxi dute 2.0 webgunearen edukiak iragazteko (esaterako, sare sozialak, foroak eta bitakorak), berehalako mezuak edo lineako solasaldi-protokoloak blokeatzeko edo harremanen zerrendak iragazteko gaitasuna.

Gehigarri gisa, «EUKidsOnline» inkestaren arabera, gutxi gorabehera gurasoen laurden batek Interneteko guneak blokeatzen edo iragazten ditu edo/eta euren seme-alabek ikusitako guneen arrastoa jarraitzen du. Hala ere, estatu kideen artean desberdintasun nabarmenak daude, Erresuma Batuko % 54etik Errumaniaren % 9ra arte doazenak.

Gurasoen kontrolen erabileraz gain, % 70ak adierazi du Interneten erabilerari buruz euren seme-alabekin hitz egin duela eta gurasoen % 58ak Interneteko erabileraren gainean dagoela esan du.

Informazio gehiago.

http://ec.europa.eu/information_society/activities/sip/projects/filter_label/sip_bench2/index_en.htm

EUKidsOnline

<http://www2.lse.ac.uk/media@lse/research/EUKidsOnline/Home.aspx>



> Industria kulturalen eta sortzaileen dimentsio enpresariala

Europako Batzordearen azterketak (Utrecht School of the Arts-ek egindakoa) ekonomia sortzailearen (kulturak eragindako sormena) sektoreko enpresen indartzeari eta gaitasun enpresarialari lotutako faktoreak aztertu ditu, bereziki ETEei dagokienean, euren garapen enpresarialaren beharretatik begiratuta. Halaber, horren inguruko gomendioak eman ditu.

Honako alderdi hauek aztertu ditu: Finantziatorako sarbidea, Merkatuaren oztopoak, Jabetza intelektualaren eskubideak, Hezkuntza eta prestakuntza, Berrikuntza eta Lankidetzak.

Informazio gehiago.

http://ec.europa.eu/culture/key-documents/doc3124_en.htm



ADIERAZLEAK

> Innovation Union Scoreboard (IUS), adierazle sintetiko europar berria

“Batasuna berrikuntzaren alde” ekimenari lotuta, Europako berrikuntzaren adierazle berriak ikerketari eta berrikuntzari lotutako hogeita bost adierazle erabiltzen ditu, hiru kategoriatan banatuta: Bideratzaileak (oinarri nagusiak: giza baliabideak, finantziarioa eta laguntza, eta ikerketa-sistema irekiak, bikainak eta erakargarriak), Enpresen jarduerak (enpresen inbertsioak, harremanak eta ekintzailtza, eta aktibo intelektualak) eta Emaiza nabarmenak (oro har, ekonomiari begirako onurak, berrikuntzari dagozkion onurak eta ondorio ekonomikoak).

EB-27, AEB eta Japoniari begirako adierazleak alderatuz gero, EB-27ak berrikuntzari dagokionean bere lehiakide nagusien aurrean duen atzerapena ez dela murrizten ari ikus daiteke. Desberdintasun nagusiak Enpresen jardueren kategorian ikus daitezke. Kasu horretan, EB-27 argitalpen publiko-pribatu bateratuetan, enpresek I+G-ean egindako gastuan, eta Japoniarekin alderatuta, PCT patenteetan atzetik dago.

Estatu kideak lau herrialde-taldetan sailkatzen ditu adierazleak: Berrikuntzaren liderrak (Danimarka, Finlandia, Alemania eta Suedia, EB-27aren batez bestekoa baino emaitza handiagoak dituzte), Berrikuntzaren jarraitzaileak, Neurrizko berritzaileak eta Berritzaile txikiak.

Informazio gehiago.

http://ec.europa.eu/enterprise/policies/innovation/files/ius-2010_en.pdf

> Estatistika ekonomiko europarrak

Eurostaten laburpen-argitalpen hau Europako ekonomiaren estatistika nagusiei buruz ari da, eta Europar Batasunaren eta bere estatu kideen azken aldiko bilakaera ekonomikoaren ikuspegi zabala eskaintzen du.

Kontu nazionalak, finantza publikoak, ordainketa-balantzeak, nazioarteko merkataritzari, prezioei, finantza-kontuei eta lan-merkatuari buruzko atalak jasotzen ditu. Gainera, metodologiari buruzko atal bat eta estatistikari buruzko eranskina ere baditu.

Informazio gehiago.

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-GK-10-001/EN/KS-GK-10-001-EN.PDF